

# IRMOKERITIK PLURALISMORAKO BIDEAN

Gizarte, famili eta sikologiko giro liferentetan jaiok izanik, gizon guziak liferenteak dira. Gizona gizarlean murgildurik egon arren, beti pertsona konkreto bakarra izango da. Funtsean gizon « standard » ik ez dugu topatzen, zeren-eta bizitzako premiazko jokaeretan eta era guzietan akort dauden bi pertsona ez baititugu ikusiko. Eman dezagun xede edo helburu berdina dutela; halere baloreen indarra eta bide konkretoak liferenteak izan ditzateke.

Hau teorlan hala izanik, pratika aldetik ere Euskal Herrian baliokoa dela diogu. Lerro hauetan hauxe azaldu nahi genuke : gure herriko abertzaleen artean irmokeri eta alkar ezin-eramana somatzen dela. Danen bekatua izanik, inoren aurka ez goaz, eta are gutxiago Euskal Herriko abertzaleen aurka, aldiz problema honetzaz jabeturik, bere ondoren eta kausak azaldu nahi ditugu, eta bigarren partean pluralismoaren arazoa aztertuko dugu.

Egun Euskal Herriak ez du Erresumarik, beraz izatasun juridikorik ere ez. Euskal Herria ez dago eginda. Prantses batek prantsessa dela eta euskaldun batek euskalduna dela esaten dutenean, oiartzun liferentea da. Paris'ko batek, naturalki « ni prantsesa naiz » dio; baina Bilbo edo Donostia'ko baten abotsean jokaera politiko bat eskatzen du. Honen sustraia lege, politika, ekonomi, gizarte, eta oraindik ere askotan kultura aldetik, Euskal Herria gaur deitzen zaion Espainia eta Frantzia'ren menpean dagoelako da. Historian zehar lege, gizarte, kultura arrotzak jabetu dira Euskal Herriaz, batez ere zapalketaren bidez euskera galdu duten eskualdeetan. Eta egoera honen kontzientzia izanik, mogimendu liberatzaile batzuk sortu dira. Helburu berdina onarturik, ideologi eta estrategi mailan ez dirade akort.

Mogimendu abertzaleak, egun, herriaren gizarte, politika eta kulturarekiko askatasuna lortu nahi dituztenak, oso zigortuak dirala ez da batere harrigarri. Gure etsaien problema euskalduntasuna da, eta batez ere euskal nazio-kultura da lurpera beharra. Beraz, mogimendu abertzaleak desegin egin behar dira. Alde batetik, indarren desberdintasunak izkutujokora bultzatu ditu abertzale mogimenduak, eta bat batean beldurra, aiherukeria eta mesfidantza sartu dira. Ikus ditzagun

gartzelak, atzerrira uxatzeak, t.a. Beste aldetik, besteak ez bezelako egoera honek euskal abertzale batzuen artean irmokeri ideologikoa, eta alkarri ezin amor ematea, sortu du. Hemen mogimendu bakoitza hausnartzeko asmorik ez dugu, zeren-eta lerro hauen haria galduko baikenuke. Dena dela, giro hortan, hau gertatzea ez da harritzekoa, baina gure etsaiak gu geure helburutik baztertzen saiatzen dirala ikusiaz, eta helburu hori NAZIO EUSKALDUNA DELA, batasuna izan behar du gure strategi garrantzitsuenak. Horra kakoa.

Batasun-bide horretan, nazio euskaldunaren bide horretan, nork esan dezake : « egia nere eskuetan dago, eta besteenak ez du fitsik balio » ? Bistan da, problema horrela azalduta, kako argikoa da ; bainan ekintzetan ez ahal da sarri gertatzen ? Begira euskal mogimenduei, beste abertzale lotugabei, ikastolei, t.a.

Gorago esan dugu, izkutu-jokoak abertzaleak bizikera anormal batera eramaten dituala. Albokoa nor dan inork ez daki. Beldurra toki guzietan nabaitzen da, eta beldur horrek bi jokabide, alkarrekin lotuak, dakarzki : bata, segurantzirik eza edo segurantzi beharra ; bestea suzeptibilitate edo aiherukeria. Izkutu-jokoak berak intransijentzia, irmokeria eta dogmakeria ekar ditzake. Sikologiaren aldetik erraz konprenitzen da : bakarka ez da posible bizitza hori aurrera eramatea, besteak behar dira, eta momentu askotan oso da erraza dogmakerian erortzea.

Edozein mogimendu liberatzailek zapalaketaren aurkako borrokan jardutean, gogorra izan behar du, eta bere armazoiari heltzeko goitik behera jokatu beharko du. Gizarte-mailan erraran jokatzeko da politika ona, baina herri batek Nazio eta Erresuma egin behar duenean, alkarrizketa arinei utzi behar zaie.

Bakoitzak bere iritziak azaltzeko beldurra, egoera horren ondorena dugu. Beldur hau, bi adarretan zabalduko genuke. Zapaltzailearen zigorrari zaion beldurra, eta beldurtizat, abertzale kaskartzat, estimatuko ote duten beldurra. Horrelako hitzak mogimendu liferenteetako ekileen artean, egunerokoak dira. Egia esateko, orain azaldu dugun giro hau mogimenduetako buru eta ekile liferenteengan, herrian baino gehiagotan azaltzen da. Alde batetik, garbi ikusten da herriak askatasuna nahi duala, eta gertaera konkretu askotan erakutsi du. Besten alde, gure burruka zailak batasuna eskatzen du. Etsaiaren joko zikin guziei bidea hesteko, ABERTZALEON BATASUNA BEHAR DUGU. Herriak bere politika-buru eta abertzale mogimenduetan fedea eta konfiantza galtzea ikusi nahi ez baditugu.

## **Pluralismoa.**

Jokabide pluralista bat onartu behar dugula diogu. Baina aurrez hitz honetzaz zer ulertzen dugun azaldu nahi genuke.

Pluralismoa, ideologia, pentsakera eta egintza liferenteak herri konkretu batean ematen dira. Pluralismoaren pentsakeran, egia absolutu edo bakarrik ez da onartzen. Pertsona ideologiengainetik dagoala baiesten da. Persona ideologi-neurrian bakarrik ez dago neurtzerik. Zerbait gehiago da. Honekin ideologiak beharrezkoak ez diranik ez dugu esan nahi.

Beti bezela, mamitzerakoan, eginetaratzean, konkretatzerakoan, egina edo egiteke dagoan herri batean kontzeptu hau desberdin azaldu liteke. Nazioa onartu ala ez, eta Nazio egin beharrak, strategi liferenteak eskatzen dituzte; eta beharbadak kontzeptoak, bigarren kasu honetan, garbi-garbirik ez dira ikusten.

Pluralismoak, jokaera garbi eta zuzena hartzeko, gizontasun heldu bat eskatzen du. Bainan inoiz ez du dogmakeria esan nahi. Gainera, gure herriaren etsenplu konkretoetan eta mogimenduen artean garbiki jokaera abertzale bat eskatzen du.

Gizarteko estruktura pluralista dogmakerian eror ez dedin, baldintza bat nabarmentzen da : zentzu kritikoa.

Askotan, ideologia, egintza, jokaera konkretoak baztertzea dela esan ohi da. Hemen beste era batean erabiliko dugu. Zentzu kritikoa, beraz, lolotasunez onartzeke eta dogmakeriaz baztertzeke, gertaera konkretoak aztertzea da. BRANKA irakurtzen duana, BRANKA onartuaz edo baztatuaz BRANKA'k diolako, BRANKA'ren irakurle kaskarra izango litzake. Horrela egiten dira gizonak eta herriak. Mogimendu edo pertsona batek, Euskal Herriaren aldeko burrukan, bere ideologiaren nausikeria bilatzen badu, zerbitzu kaskarra egiten dio herriari. Sozialistak, gizonengan fedea izanik, gizonaren askatasuna, eta herriarena ondorioz, pluralismo ideologiko baten barnean ikusten du.

Irizmen edo zentsu kritiko hori positibo izan dedin, jokaera garbiak esijitzen ditu. Herriak ere bere eskubideak ditu, eta bistan da bere mogimendu abertzaleen asmoak eta egoera ezagutu behar dituala. Dena dela, oraingo egoera honetan posizioak askatasun giro batean baino ilunagoak dira. Askotan eskatzen diegu besteei eman ezin lezaketena.

Baina bi eragozpen-mota ikusten ditugu gure herriaren pluralismo bidean. Alde batetik, Euskal Herria Frantzia eta España'ko gobernuen eskuan menperatuta egotea. Gure herriaren naziotasuna eta nazioizakera bortxaz lurpera nahi dute. Euskaldun kutsua senditzea zampaketa dute bide : gartzela, tortura, atzerrira uxatzea, t.a. Ikus abertzale erakundeak ari dirala kolperik haundienak jasotzen. Frantzia eta España'rentzat etsaia eta arriskoa abertzaletasuna da, bai Iparraldean, bai Hegoaldean. Baina abertzale mogimenduetako buru eta ekile batzuk, beren pentsakera eta ekintzari soiltasun-izakera, eskusibotasuna, ezartzen diote. Jokaera horrekin hain zuzen ez pluralismorik eta ez batasunik ez da posible. Abertzale mailan, hortaz, hori da gure arriskurik haudiena.

Beraz, Euskal Herriaren askatasunaren burrukan, bai Iparraldean bai Hegoaldean, ideologia-pluralismoak izan behar du bidea. Ez dago hauzia baztertzerik; zeren bakoitzak bere pentsakera eta ekintzak ez dogmakeriaz, bain bai gogoz eta sakonki defenditzeko eskua du...

Bide hortatik eta piskanaka, denon arteko lanez, ABERTZALE GUZION ALKARTASUNA mamitu egingo da eta egia bihurtuko.

MENARA.